

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 179/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 18koa. Honen bidez, lehiakortasun-erako eta lankidetzan sortutako berrikuntzarako Elkarlanean 2019 Programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onartzen dira.

Berrikuntzarako lankidetzaren enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko oinarritzko estrategietako bat bilakatzen hasi da, berez haiek dituzten neurrien eta boterearen mugak gainditzea eta banakako ikuspegi hutsetik ezinezkoak liratekeen negozio-aukera berrietara iristea ahalbidetzen dietelako.

Hala eta guztiz ere, agerikoak dira erakundeek baterako negozio-aukerak zein konfiantzan oinarritutako harremanak eraiki ahal izateko aukerak identifikatzeko dituzten benetako zailtasunak.

Beldurrak, beste inorekiko konfiantza-eza, bazkideak bilatzeko joera ez oso baikorra..., horiek guztiek era honetako proiektuak bultzatzeko mesfidantzak sorrarazten dituzte. Halako hitzarmenak aurrera eramateko zailtasunak eta huts egiteko arriskua dira lankidetzaren potentzialaren aprobeitxamendu handiagoa oztopatzen duten faktoreak.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak apustu sendoa egiten du enpresen arteko lankidetzaz sortutako proiektuak sustatzearen alde, baldin eta proiektuok du-darik gabe izaera berritzailea badute eta aukera ematen badute enpresa txiki eta ertainak eta haien lehiakortasuna areagotzeko enpresa-jardueraren edozein arlotan.

Zehatzago, programa honetan, hazkunderako estrategia gisa lankidetzan sortutako berrikuntzarako proiektuak egitea sustatu nahi da, eta enpresen artean modu kooperatiboan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legala aztertzen lagundu nahi da.

Estrategia horretan guztiz funtsezkoa da era batera edo bestera dagoeneko era horretako proiektuak bultzatzeko ahaleginetan diharduten bitarteko eragile guztien lankidetzaren.

Dekretu hau eta lortu nahi dituen helburuak Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bere zeregina lortzeko jarduera-multzoaren zati dira. Izan ere, programak eta zerbitzuen garapenean sustatzen ditu jarduera horiek, aberastasuna sortzen laguntzeko, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra sustatuta.

Programa hau Euskadiko Feder 2014-2020 Programa Eragilearen bidez ere finantzatu da, Feder Landa Garapenerako Europako Funtsaren arloan. Une oro begiratuko da europar politikak bete daitezkeen; batez ere, honako alderdi hauetan: ingurumena, aukera-berdintasuna, kontratazio publikoa eta europar kofinantziazioaren publikitateak.

Dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean (aurrerantzean EGBL) ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa; izan ere, haren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori EGBLn dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

Programa honetan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeaz gain, kohesioari laguntzeko, egungo politika publikoen aplikazioa sendotzen duten klausula sozialak sartu dira. Horretarako, «diru-laguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida»ren gomen-dioei jarraitu zaie, gida horrek balio baitu diru-laguntzen erregelamenduaren 45. artikulua aldaketa aplikatzeko; erregelamendu hori Bizkaiko Batzar Nagusiek 2017ko urriaren 18an onetsitako mozioaren ondorioz eguneratu zen.



Foru-dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean APAPEL) aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Adierazitakoa dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuak proposatuta eta aurretik Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsita, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2018ko abenduaren 18ko batzarraldian, hauxe

XEDATU DU:

I. TITULUA

ONARRIZKO EZAUGARRIAK

1. artikulua. — Dekretuaren xedea

Foru dekretu honen xedea da Elkarlanean Programa 2019 jasotako diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta deialdia onartzea.

2. artikulua. — Definizioak

Dekretu honetan definizio hauek biltzen dira:

«*Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektua*»: erakunde batzuek batera parte hartzen dute negozio-aukera berritzaile bat garatzen eta/edo prototipatzen; aukera hori aplikatzen laguntzen dute, eta arriskuak zein emaitzak partekatzen dituzte.

«*Partzuergoa*»: lankidetzak-formula honetan, erakunde batzuek beren ezagutzak, gaitasunak eta/edo baliabideak partekatzen dituzte jarduera bateratu bat egiteko (negozio-aukera bat, berrikuntza-proiektu bat...); arriskuak partekatzen dituzten arren, bazkide bakoitzak bere independentzia juridikoari eusten dio.

«*Asmo-akordioa*»: erakundetan nahikoa ordezkaritza-ahalordea duten pertsonen sinatutako dokumentu formal bat da; dokumentuan, egin beharreko ekintzez gainera, partzuergoaren alderdi bakoitzak hartutako konpromisoak jasotzen dira. Dokumentuak aukera emango die negozio-aukera identifikatu baten bideragarritasuna aztertze eta etorkizunean proiektu berritzaile bateratu bat egiteko baldintzak zehazteko.

«*Lankidetzak-akordioa*»: enpresetan nahikoa ordezkaritza-ahalordea duten pertsonen sinatutako dokumentu formal bat da; dokumentuan, lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektua egitearen ondoriozko erantzukizunen eta jardueren banaketa eta kostu zein sarreraren banaketaren aurreikuspena ezartzen dira.

Inoiz ez dira lankidetzak proiektutzat hartuko enpresen arteko bezero-hornitzaile harremanak.

«*Enpresa*»: jarduera ekonomikoa egiten duen erakunde oro da, nortasun juridiko propioa duena; salbuespenak dira ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak. Jarduera zuzenean merkatura bideratuta daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteak ere sartzen dira kontzeptuaren barruan.

«*Bitarteko organismoa*»: bere xede nagusien artean enpresen arteko lankidetzak sustatzea duen erakunde oro. Kontzeptu horren barruan, enpresaburu-elkarteak, kluster erako elkarte sektorialak, toki-erakundeak eta toki-erakundeen mendeko sozietateak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak sartzen dira, baina, horretarako, enpresen arteko lankidetzak sustatzea egon behar da haien xede nagusien artean.

«*Erakunde liderra*»: 4. artikulua edo 10. artikuluan xedatutako entitate onuradunaren baldintzak betetzen dituen erakundea izango da erakunde liderra.

Aurkeztutako eskaeraren arabera erakunde liderra proiektuaren jardueren portzentajerik handiena egiten duen eta gasturik handiena daukan erakundea izan behar da elkartearen barruan.

Eskabidea aurkezteko eta diru-laguntza osoa justifikatzeko agiriak aurkezteko arduraduna izango da erakunde liderra, eta parte hartzen duten erakundeetako bakoitzaren



agiriak jaso beharko ditu. Gainera, Sailaren komunikazio guztiak hartuko ditu eta haren ardura izango da informazio hori partzuergoko gainerako erakundeei helaraztea..

Beraz, erakunde liderra laguntzarako solaskide bakarra izango da.

I. KAPITULUA

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA

3. artikulua. — *Helburua*

Dekretuko kapitulu honek itzuli behar ez diru-laguntzak eskaintzen dizkie erakunde onuradunei:

- a) Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak egitea partzuergoko enpresen artean, arriskuak partekatuta.
- a) Enpresa batzuen artean modu kooperatiboan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legalari buruzko azterlanak egitea.

4. artikulua. — *Erakunde onuradunak*

Jasotako onuren hartzailerik izan daitezke:

Berezko nortasun juridikoa duten enpresek, jarduera nagusia hauetariko bat badute: Industria, Eraikuntza, Industriari lotutako zerbitzuak, Turismoa eta Handizkako merkataritza; (I. eranskinean ageri dira 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeetatik diru-laguntza jaso dezaketenak). Horrez gainera, baterako eskaera aurkeztu behar dute, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Proiektuan parte hartzen duten erakunde onuradunak direla ulertuko da honako baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- c) 5 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan.

Plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeragatik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin diren langile autonomoak.

Ez dira plantillakotzat joko atzerriko instalazioetan lan egiteko kontratatatu diren langileak.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioaren murrizketen kasuan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

- d) Honako bi muga hauetako bat, gutxienez, ez gaingitzea, aurkeztutako azken Sozietate Zergako aitortpenaren arabera:
 - urteko negozio kopurua: 20.000.000 euro.
 - balantze orokorra: 20.000.000 euro.

Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten baina proiektuan parte hartzen duten enpresak izango dira dekretuko kapitulu honen onuradunak, baldin eta guztiek egindako gastuak diru-laguntza jaso dezaketen oinarritzko gastu osoaren %20 gaingitzen ez badu.

- a), b), eta c) baldintzak, pertsonen gutxienerako kopuruari buruzkoak, egiaztatu behar dira eskabidea aurkeztu den unean, eta haiei eutsi behar zaie, harik eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte. Gehieneko pertsona kopuruari buruzko c) baldintza eta d) baldintza, aldiz, eskabidea aurkeztu denean egiaztatu behar dira.
- e) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.



- f) Berdintasun-printzipioaren aurka ez egotea, hau da, haren helburuetan, onartze-sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueran, diskriminaziorik ez egitea sexua dela-eta edo beste edozein egoera zein inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.
- g) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean DLFA) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretakoa batean ere.
- e) f) eta g) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, DLFAren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Diru-laguntza hauetatik kanpo geratzen dira, betiere, foru sozietate-publikoak, Eusko Jaurlaritzaren menpeko sozietate publikoak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak. Era berean, kanpo geratzen dira jarduera zuzenean merkatura bideratuta ez daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteak..

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek DLFAren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzak eskaini beharko diete.

EGBLn xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

5. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea

Diruz lagunduko da lankidetzan sortutako berrikuntzaren alde baliabide eta arriskuak partekatuz enpresa batzuen artean (partzuergo batean) eginiko lana, artikulua honetan ezarritakoarekin bat.

Horren arabera, bi proiektu mota aurkeztu ahal izango dira, haien garapen-fasea kontuan hartuta:

1. Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak, teknologia arlokoak zein bestelakoak, erakundeen negozio-estrategiekin koherente direnak .

Diruz lagundu ahal diren proiektu mota hauek barnean hartu ahal dituzten ekin-tzen xedeak hauek izan ahal dira:

- a) Produktu edo zerbitzu berriak diseinatzea edo garatzea, edo lehendik zeuden produktuen prestazioak hobetzea, merkatuan txertatu ahal izateko.
- b) Negozio-eredua aldatzea balio erantsi handiagoa duten elementuen salmentara bideratzeko, «zerbitzazioa» barne (produktuen salmenta produktua + zerbitzua binomiora eboluzionatzea da zerbitzazioa).
- c) Berrikuntza, merkatu berrietara irekitzeko eta produktu eta zerbitzuak merkatura-tzeko bide berriak sortzeko.

Diru-laguntza jaso dezakeen egitate honen ondoreetarako, aurkeztutako proiektuek bi enpresa edo gehiagoren arteko lankidetzak-akordioa jaso behar dute 2. artikuluan deskribatutakoaren arabera).

2. Enpresa batzuen artean lankidetzan identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasuna aztertzea berrikuntza-proiektuak sortu ahal badira.

Proiektu mota hauetan jarduera hauek sartuko dira:

- a) Identifikatutako negozio-aukerari eta etorkizuneko ustiapenari buruzko bideragarritasun-azterlana.
- b) Partzuergoa osatzeko eta dinamizatzeko lanak:

Diru-laguntza jaso dezakeen egitate honen ondoreetarako, aurkeztutako proiektuek bi enpresa edo gehiagoren arteko asmo-akordioa jaso behar dute 2. artikuluan deskribatutakoaren arabera).



3. Honako proiektuek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:
- Banakako berrikuntza-proiektuak edo bezero-hornitzaile harremana (azpikontratazioa) bakarrik jasotzen dutenak.
 - Enpresa parte-hartzaileek baliabideak, kostuak eta arriskuak konpartitzen ez dituzten proiektuak.
 - Enpresen nazioartekotzera zuzendutako proiektuak.
 - Bizkaiko Lurralde Historiko ekoizpen-zentroetan aplika ezin daitezkeen proiektuak.
 - Kalitate kontrolari lotutako proiektuak, eta produktuak/zerbitzuak egokitzea merkatuak edo aplikatu beharreko arauak ezarritako berariazko betekizunetara.
 - «Funtsezko ikerketa» edo «Industria ikerketa» egiteko proiektuak, Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatzearen ondorioz (2014-06-26ko AO, L 187), zenbait laguntza-kategoria barruko merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Erregelamenduan jasotako definizioarekin bat etorrira.
 - Plangintzarako pakete informatikoak (ERP, CRM, GMAO, etab. gisakoak) garatzeko proiektuak.
 - Plan estrategikoak, merkataritza-planak edo antzekoak eta haien berrikuspenak idazteko aholkularitza.
 - Produktuaren bizi-zikloari buruzko azterketak.
 - Edozein ziurtagiri lortzeko ekintzak.
 - Azoketara joatea, katalogoak, web orriak.
 - Aktibo finkoetako inbertsio-proiektuak.
 - Patente, erabilgarritasun-eredu edo diseinuaren eskabideari beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egindako alegazioen edo aurkakotzen aurreko defentsa legalak eta erantzunak.
 - Definizioan (argitasuna, plangintza, burutzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (bitarteko teknikoak, giza-taldea, zuzkidura ekonomikoa...) akats nabarmenak edo agertzen dituzten proiektuak.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduketa-arlo batzuen barruan, bereziki Berrikuntza Sustatzeko Planaren barruan, egon ahal diren jarduerak
 - Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren helburuekin koherenteak ez diren edota Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eskumen-eremuaren barruan ez dauden jarduerak

Ez dira diruz lagun daitezkeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati integralaren barruan ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak.

Edonola ere, proiektuek ez dute sexuan oinarritutako bereizkeriarik egingo, eta sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko ahalegina egingo dute.

6. artikulua. — Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

I. kapitulua honetako aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbaketatzeko, eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua, gastu-kontzeptuka desglosaturik, hartuko da kontuan.

1. Gastu mota hauek jaso ahal izango dute diru-laguntza:

- a) Aurkeztutako proiekturako jarritako langileei buruzko barruko gastuak.

Kontzeptu horretan, erakunde eskatzailearen konturako karga sozialek eta soldata-gastuek eragindako zuzeneko langile-gastuei dagozkienak daude sartuta. Pertsona orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:



$$\text{Perts. Ordua/€ kostua} = \frac{\text{G.S.K.O. X 12 X 1,25}}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

— G.S.K.O. gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

— Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanandiaren murrizketaren portzentajea kontutan hartuta, halakorik egonez gero.

Bakarrik erakundeko 2 pertsonaren kostuak egotziko dira, gehienez, haien lanaldiaren ordu kopuruaren arabera.

Proiektuari egotzi ahal zaion gehieneko ordu kopurua 80 ordu izango da, enpresa eta hileko.

b) Diru-laguntzaren xedeko proiektuari zuzenean loturiko kanpoko gastuak, behar bezala justifikatuta badaude.

2. Honako hauek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:

— 1000 eurotik (BEZa sartu gabe) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapen edo ordainketa epetan edo erlotan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko.

— Zergak eta tasak, BEZa barne (baita BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere).

— Zeharkako gastuak.

— Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).

— Bidaiei, otorduen eta mantenuaren gastuak.

— Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.

— Ekipamendua eskuratzeko ibilgetu materialeko inbertsioak.

— Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak.

— Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.

— Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.

— Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste laguntza-programa batzuetan diruz lagun daitezkeen beste gastu guztiak.

Proiektuaren diruz lagundu daitezkeen oinarriari gehitzekotzat joko dira proiektu hori egiten laguntzen duten erakundeek izandako gastuak. Haien guztien batura izango da diruz lagundu daitezkeen gastu osoa.

Diru-laguntza jaso dezakeen oinarria zehazten denean, dekretuaren I. kapituluaren 4. artikulua baldintzetako bat betetzen ez duten enpresa guztien partaidetzaren %ak diru-laguntza jaso dezakeen oinarriaren %20 gainditzen badu, zenbateko horiek doitu egingo dira, %20ko muga hori gaindi ez dezaten.

15.000 euro edo gehiagoko (BEZik gabe) kanpoko gastuak kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

Dekretu honen 16. artikuluan ezarritako burutzeko epearen barruan (2018ko urtarri-laren 1aren eta 2020ko ekainaren 30aren bitartean) sortutako eta fakturatutako gastuak



lagundu ahalko dira diruz, beti ere dekretu honen 17. artikuluan ezarritako justifikatzeko azken eguna (2020ko irailaren 1) baino lehen ordaintzen badira.

7. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Emango diren laguntzak itzuli behar ez diren diru-laguntzak dira.

Gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatu da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz.

Kostu mota / Tipo de coste	Diru-laguntzaren % / % de subvención		
	0-34 puntu / puntos	35-50 puntu / puntos	51-100 puntu / puntos
Kanpoko gastuak / Gastos externos	0%	40%	60%
Barneko gastuak / Gastos internos			

Gutxienez 35 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ezetsi egingo dira, laguntza ekonomikoa jasotzeko gutxieneko puntuaziora ez heltzeagatik.

Eskabide bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 60.000 euro izango da, eta, gehienez ere, 30.000 euro izan ahal izango dira pertsonalaren barruko gastuen kontzeptutako.

Ez da proiektoko 6.000 eurotik beherako diru-laguntzarik emango.

Jarduera noiz egiten den kontuan hartu gabe, elkarren jarraiko aurrekontu-ekitaldi bi edo gehiagoren kontura adjudikatu daitezke diru-laguntzak.

8. artikulua. — Balorazio irizpideak

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten enpresetatik, baloraziorik onena lortzen dutenek jasoko dituzte diru-laguntzak, erabilgarri dagoen aurrekontuaren mugarekin, honako irizpide hauen arabera:

1. irizpidea. — Proiektuaren garrantzia partzuergoko enpreseentzat (15 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Eragina partzuergoko enpresen negozio estrategia elementu zentraletan.
- Proiektuak ekartzen duen apustu maila partzuergoko enpresarentzat.

2. irizpidea. — Proiektuaren berrikuntza maila (40 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Negozio-aukera edo lankidetzat proiektuaren berrikuntza-maila arte-egoerarekiko.
- Proiektuak erantzuna eman nahi dien merkatuko beharrian bete gabeak.
- Proiektua Euskadiko espezializazio adimenduneko RIS3 sektoreei lotuta dago.

3. irizpidea. — Lankidetzat-partzuergoa (30 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Proiektua garatuko duen partzuergoaren konfigurazioa: dibertsitatea, osagarritasuna, oreka, konpromisoa eta partzuergoko kideen arteko independentzia gradua.
- Parte-hartzaile bakoitzaren profila eta erakunde bakoitzak bete behar dituen rolak.
- Erakunde bakoitzak jarritako baliabideak eta kapitalak (ezagutza, denbora, baliabide materialak, erlazioak...).

4. irizpidea. — Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Proiektuaren helburu, adierazle eta mugari orokorren definizioaren argitasuna.
- Proposatutako lan-planaren zehaztapena, kronograma, baliabide-esleipena, ebaluazio-eta jarraipen-sistema eta proiektua aurrekontuari egokitzea, egingarria izan dadin.



- c) Lantaldea koordinatzeko eta ustekabeak kudeatzeko metodologia. Konfiantza sortzeko, itxaropenak eta mesfidantzak kudeatzeko eta balizko gatazkak eta ziurgabetasunak konpontzeko dinamikak.

5. irizpidea. — *Enpresek ingurumenarekin, erantzukizun sozialarekin eta berdintasunaren sustapenarekin duten konpromisoa (5 puntu, gehienez)*

Irizpidea honetan, kontuan hartuko da enpresek ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

Irizpide horiek erabiliz organo instruktoreak, Berrikuntza Zerbitzuak, ebaluazioa egingo du eta azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egingo du; hortik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

Gutxienez 35 puntu lortu dituzten eskabideek bakarrik lor lezakete diru-laguntza.

II. KAPITULUA

BITARTEKO ORGANISMOEN ARTEKO LANKIDETZA

9. artikulua. — *Helburua*

Lankidetzaren kultura bultzatzeko egin beharreko sentsibilizazio-lanak eta aurreko atazak aktibatzea garrantzitsua denez, kapitulu honen xedea da bitarteko organismoen arteko ekintza bateratua sustatzea, lankidetzan sortutako berrikuntzarako sustapen-jardueren eraginkortasuna areagotzeko.

10. artikulua. — *Erakunde onuradunak*

Jasotako onuren hartzaile izan daitezke:

Berezko nortasun juridikoa duten irabazteko asmorik gabeko erakundeak eta toki erakundeak, toki erakundeen mendeko merkataritzako sozietateak, haien xede nagusien artean enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea badago eta baterako eskabideak 15. artikulua xedatutakoarekin bat aurkeztzen badute.

Proiektuan parte hartzen duten erakundeek baldintza hauek bete behar dituzten onuradun izateko:

- a) Erakunde horiek Bizkaian eduki beharko dituzte euren sozietate-egoitza eta zerga-egoitza, kluster-elkarteen salbuespenarekin, azken horien kasuan Euskal Autonomi Erkidegoa izan baitaiteke.

Baldintza hori eskaera aurkeztzen den unean bete beharko dira eta azken bete-beharra eta ordainketa aintzatesten diren unera arte bere horretan mantendu beharko dira.

- b) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

- c) Berdintasun-printzipioaren aurka ez egotea, haren helburuetan, onartze-sistema, funtzionamenduan, ibilbidean edo jardueran, emakume eta gizonen artean bereizkeriarik egiten ez duten enpresak baitira.

- d) Ez dagoela DLFAren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.

b), c) eta d) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, DLFAren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu guztietan salbuetsita geratuko dira foru sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek DLFAren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzaren eskaini beharko diete.



EGBLn xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko, eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

11. artikulua. — *Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea*

Diruz lagunduko dira jarduerak baldin eta haien helburua bada aurreko baldintzak sortzea enpresen arteko lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak egiteko.

Aurkeztutako proiektu bakoitza bitarteko organismo batzuen artean egin beharko da, lankidetzan, eta aurretik egin ez diren jarduketak berritzaileak izan behar ditu xede, beren finantzaketarako funts osagarriak behar dituztenak.

1. Diruz lagundu daitezkeen proiektuetan jarduera hauek sartu behar dira:
 - a) Baterako dinamikak garatzea eragileen artean, sektoreen eta/edo lurraldeen arteko negozio-aukerak identifikatzeko eta zehazteko.
 - b) Zaintza lehiakor kolaboratiboa egitea, enpresentzako joera teknologikoak zein merkatuko aukerak identifikatzeko, batez ere lagungarriak direnean ezagutarazteko halako joerek zer balio duten lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektu zehatzak identifikatzeko.
 - c) Enpresen taldeak diseinatzea eta dinamizatzea, lankidetzan egindako negozioetarako leudekeen aukerak identifikatzeko eta sortzeko.
2. Proiektu hauek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:
 - Banakako jarduerak.
 - Bitarteko erakunde parte-hartzaileek baliabideak eta kostuak konpartitzen ez dituzten proiektuak.
 - Azoketara joatea, katalogoak, web orriak
 - Nazioarteko partzuergoak sustatzeko proiektuak.
 - Aktibo finkoetako inbertsio-proiektuak.
 - Bizkaiko Lurralde Historiko ekoizpen-zentroetan aplika ezin daitezkeen proiektuak.
 - Definizioan (argitasuna, plangintza, burutzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (bitarteko teknikoak, giza-taldea, zuzkidura ekonomikoa...) akats nabarmenak edo agertzen dituzten proiektuak.
 - Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduketa-arlo batzuen barruan, bereziki Berrikuntza Sustatzeko Planaren barruan, egon ahal diren jarduerak
 - Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren helburuekin koherenteak ez diren edota Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eskumen-eremuaren barruan ez dauden jarduerak

Ez dira diruz lagun daitekeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati integralaren barruan ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak

12. artikulua. — *Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak*

Laguntza II. kapitulua honetan aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbatekotzeko, eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua, gastu-kontzeptuka desglosaturik, hartuko da kontuan.

1. Gastu mota hauek jaso ahal izango dute diru-laguntza:
 - a) Aurkeztutako proiekturako jarritako langileei buruzko barruko gastuak.Kontzeptu horretan, erakunde eskatzailearen konturako karga sozialek eta sol-data-gastuek eragindako zuzeneko langile-gastuei dagozkienak daude sartuta. Pertsona orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:



- G.S.K.O. gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.
- Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanandiaren murrizketaren portzentajea kontutan hartuta, halakorik egonez gero.

$$\text{Perts. Ordua/€ kostua} = \frac{\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1,25}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

Bakarrik erakundeko 2 pertsonen kostuak egotziko dira, gehienez, haien lanandiaren ordu kopuruaren arabera.

Proiektuari egotzi ahal zaion gehieneko ordu kopurua 40 ordu izango da, organismo eta hileko.

- b) Diru-laguntzaren xedeko proiektuari zuzenean loturiko kanpoko gastuak, behar bezala justifikatuta badaude.
- 2. Honako hauek ezingo dute diru-laguntzarik jaso:
 - 1.000 eurotik (BEZa sartu gabe) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapen edo ordainketa epetan edo erlotan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko.
 - Zergak eta tasak, BEZa sartuta (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan salbu).
 - Zeharkako gastuak.
 - Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).
 - Bidaiei, otorduen eta mantenuaren gastuak.
 - Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.
 - Ekipamendua eskuratzeko ibilgetu materialeko inbertsioak.
 - Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak.
 - Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste laguntza-programa batzuetan diruz lagun daitezkeen beste gastu guztiak.

Proiektuaren diruz lagundu daitezkeen oinarriari gehitzekotzat joko dira proiektu hori egiten laguntzen duten erakundeek izandako gastuak. Haien guztien batura izango da diruz lagundu daitezkeen gastu osoa.

15.000 euro edo gehiagoko (BEZik gabe) kanpoko gastuak kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

16. artikuluan ezarritako burutzeko epearen barruan (2018ko urtarrilaren 1aren eta 2020ko ekainaren 30aren bitartean) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 17. artikuluan ezarritako justifikatzeko azken eguna (2020ko irailaren 1) baino lehen ordaintzen badira.

13. artikulua. — Diru-laguntzen zenbatekoa

Emango diren laguntzak itzuli behar ez diren diru-laguntzak dira.



Gehieneko diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatu da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz, kostu motaren arabera:

Kostu mota / Tipo de coste	diru-laguntzaren % / % de subvención	
	0-34 puntu / puntos	35-100 puntu / puntos
Kanpoko gastuak / Gastos externos	0%	60%
Barneko gastuak / Gastos internos		

Eskabide bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000 euro izango da, eta, gehienez ere, 20.000 euro izan ahal izango dira pertsonalaren barruko gastuen kontzeptutako.

Ez da proiektoko 6.000 eurotik beherako diru-laguntzarik emango.

Jarduera noiz egiten den kontuan hartu gabe, elkarren jarraiko aurrekontu-ekitaldi bi edo gehiagoren kontura adjudikatu daitezke diru-laguntzak.

14. artikulua. — Balorazio irizpideak

Proiektuak ebaluatzeko taula honetan jasotzen diren ebaluazio-irizpideak eta puntuazioak aplikatuko dira:

1. irizpidea. — Lortu nahi diren helburuak (15 puntu, gehienez)

Irizpide honen baloraziorako lankidetzaproiektuak lortu nahi dituen helburu partekatuak eta erakunde bakoitzarentzako helburu bereziak kontuan hartuko dira.

2. irizpidea. — Berrikuntza maila (40 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Jardueren berrikuntza-maila.
- Negozio-aukeren edota merkatuko beharrian betegabeen identifikazioa.
- Erabilitako lankidetzako dinamikak.

3. irizpidea. — Lankidetzapartzuergoa (30 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Proiektua gauzatuko duen partzuergoaren egituraketa: partzuergoko kideen arteko aniztasuna, osagarritasuna, oreka, konpromisoa eta independentzia-maila.
- Parte-hartzaile bakoitzaren profila eta erakunde bakoitzak bete behar dituen rolak.
- Erakunde bakoitzak jarritako baliabideak eta kapitalak (ezagutza, denbora, baliabide materialak, erlazioak...)

4. irizpidea. — Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu, gehienez)

Alderdi hauek kontuan hartuta egingo da irizpide honen balorazioa:

- Proiektuaren helburu, adierazle eta mugarri orokorren definizioaren argitasuna.
- Proposatutako lan-planaren zehaztapena, kronograma, baliabide-esleipena, ebaluazio-eta jarraipen-sistema eta proiektua aurrekontura egokitzea, egingarria izan dadin.
- Lantaldea koordinatzeko eta ustekabeak kudeatzeko metodologia. Konfiantza sortzeko, itxaropenak eta mesfidantzak kudeatzeko eta balizko gatazkak eta ziurgabetasunak konpontzeko dinamikak.

5. irizpidea. — Erakundeak ingurumenarekin, erantzukizun sozialarekin eta berdintasunaren sustapenarekin duen konpromisoa (5 puntu, gehienez)

Irizpidea honetan, kontuan hartuko da erakundeek ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.



Irizpide horiek erabiliz organo instruktoreak, Berrikuntza Zerbitzuak, ebaluazioa egingo du eta azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egingo du; hortik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

Gutxienez 35 puntu lortu dituzten eskabideek bakarrik lor lezakete diru-laguntza.

III. KAPITULUA

ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZARI ETA BITARTEKO ORGANISMOEN ARTEKO LANKIDETZARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

15. artikulua. — *Eskabideak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 1ean hasiko da, eta 2019ko martxoaren 15eko 13:30ean amaituko da.

Proiektua aurkezten duten erakunde guztiek sinatuta egongo da eskabidea, hau da, haietako bakoitza joko da laguntzaren eskatzailatzat. Eskabidean, erakunde bakoitzari dagozkion erantzukizunak eta jarduerak jasoko dira.

16. artikulua. — *Burutzeko epea*

Dekretu honen babesean garatutako proiektuak 2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitarteko epearen barruan hasi eta amaitu behar dira.

Salbuespen gisa, eta proiektua 2020ko ekainaren 30erako (egun hori barne) amaitu ezin dela arrazoiz aurrez ikusten bada, erakunde liderrak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean proiektua egiteko epea luzatzeko eskatu beharko du. Eskaera hori egiteko azken eguna 2020ko ekainaren 1a izango da. APAPELen 32.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

Laguntza eman behar dela onetsiz gero, Sailak dagokion ebazpena emango du, eta laguntzaren iraupen zehatza ezarriko du; edonola ere, iraupen hori ezin izango da 2020ko urriaren 30etik beranduagoa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bera-riazko ebazpenik emango ez balu horretarako lege ezarritako epean, administrazioaren isiltasunaren ondorioz eskaera ezetsi dela ulertuko da.

17. artikulua. — *Justifikatzeko epea*

2020ko irailaren 1a izango da dekretu honen babesean aurkeztutako proiektuak justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko azken eguna.

Salbuespen gisa, eta proiektua 2020ko irailaren 1erako (egun hori barne) justifikazio dokumentazioa aurkeztu ezin dela arrazoiz aurrez ikusten bada, erakunde liderrak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean proiektua justifikatzeko epea luzatzeko eskatu beharko du. Eskaera hori egiteko azken eguna 2020ko ekainaren 1a izango da. APAPELen 32.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, epeak luzatzeari edo hori ukatzeari buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

Epea luzatzea bidezkoa dela balioztatzen bada, aipatutako sailak horren arabera emango du erabakia eta epearen iraupena zehaztuko du. Epea ezingo da 2020ko urriaren 30etik beranduagoa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak bera-riazko ebazpenik emango ez balu horretarako lege ezarritako epean, administrazioaren isiltasunaren ondorioz eskaera ezetsi dela ulertuko da.

18. artikulua. — *Gehienez aurkez daitekeen eskabide-kopurua*

Erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu ahal izango du lider moduan deialdi batera.



Ez dago mugarik beste lankidetzat proiektu batzuetan parte hartzeko, baldin eta proiektu horietan erakundea buru ez bada.

Organo instrukzio-egileak erabakiko du lankidetzat halakotzat jo daitekeen ala ez dekretu honetan ezarrita dagoenaren arabera, eta jo ezin dela erabakiz gero, buru den erakundeari eskaria berriro egiteko eskatu ahal izango dio.

Enpresa bateko enpresa-kopuruak artikulua honetako lehenengo bi paragrafoetan ezarrita dauden mugak gainditzen baditu, organo instruktoreak jasotako lehenengo eskabidea baino ez du ebaluatuko, eta gainerako eskabideak automatikoki ezetsiko ditu.

19. artikulua. — Aurkeztu beharreko agiriak

Dekretu honen onurei heldu nahi dieten erakundeek telematikoki aurkeztu beharko dute dokumentazio guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bitartez, ondoren datozen ataletan xedatzen denaren arabera.

1. Eskabidea egitean:

a) Eskabide telematikoa, 28. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Proiektuko buru den erakundeak aurkeztu beharko du eskabidea, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualean, eskaria aurkezteko epea amaitu baino lehen (15. artikulua). Eskari hori ez da benetan gauzatuko behar bezala azalduko den bezala proiektuaren memoria jaso arte.

b) Proiektuaren memoria, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web gunean eskura daitekeen ereduaren arabera, behar bezala beteta eta proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitza ordezkatzeko ahalorde nahikoa duten pertsonak sinatuta.

c) Akordio formala, proiektua garatzen duten erakundeetako bakoitzean ordezkaritza-ahalorde nahikoa duten pertsonak izenpetua; proiektuaren garapen-fasea kontuan hartuta, akordio mota hauetakoren batean jasoko da:

— Asmo-akordioa, non jasoko den zer helburu dituen proiektuak, zer ekintza eramango diren aurrera eta zer konpromiso hartzen duen partzuegoko kide bakoitzak.

Bitarteko organismoak, hau da, II. kapituluko erakunde onuradunak badira, honelako akordio bat izenpetu beharko dute.

— Lankidetzat-akordioa, non jasoko den zer erantzukizun eta jardueren banaketa ezarri diren eta kostu eta sarreraren banaketaren aurre ikuspena jasotzen dituen.

d) Eskuragarri dagoen langileen azken zerrenda nominala (lehen TC2a) Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, azken banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko da pertsona bakoitzeko, bai eta kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne)

e) 15.000 euro edo gehiagoko (BEZik gabe) kanpoko gastuen kasuan, esleitutako kopuruak justifikatzen dituzten eskaintza, kontratu edo fakturen kopia.

f) Eskaera egiteko unean gauzatuta dauden kanpoko gastu guztietarako fakturak eta horien banku ordainketen frogagiriak. Ez da onartuko eskura ordaintzea.

g) Indarrean dauden ingurumen, genero ikuspegi, euskararen sustapen eta enpresen gizarte erantzukizuneko ziurtapenak eta/edo planak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diplomak ere.

h) Hartzekodunaren fitxa, hala badagokio, behar bezala beteta, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak duen enpresaren banku-helbideratzea aldatu nahi bada. Dokumentazio osoa dagoela jotzen den data zehazterakoan ez da kontuan hartuko hartzekodunaren fitxa, espedientearen ebazpena emateko ondorioetarako.

i) Erakunde guztien Minimis laguntzaren erantzukizunpeko aitorpena, web gunean dagoen ereduaren arabera.



- j) Bizkaiko Lurralde Historikokoak ez diren erakundeei edozein erakunderi Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan inskribatzeko eskatzen zaien dokumentazio guztia eskatu ahal izango zaie (2010eko apirilaren 27ko 61/2010 Foru Dekretua; 2010eko apirilaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 80. zenbakia).

Proiektua baloratzeko, jasotako agiriak hartuko dira kontuan eta proiektuan parte hartzen duten enpresako pertsonekin egindako elkarikusketan bildutako informazioa.

2. Proiektua amaitutakoan aurkeztu beharreko agiriak, eta diru-laguntza egiaztatze-ko eta espedientearen itxeko (azken eguna: 2020ko irailaren 1a, egun hori barne).

17. eta 18. artikuluetan aipatutako kasuetan proiektua gauzatzeko edo justifikatzeko epea luzatzea onartzen denean, proiektuaren amaierako justifikazioa luzapena ematen duen ebazpenean ezarritako epearen barruan aurkeztu behar da.

Egiaztapen-kontuaren sistemaren bidez egin beharko da diru-laguntzaren justifikazioa eta horretarako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diru-laguntza emateko ezarri diren baldintzak bete direla egiaztatzen duen jardura-memoria bat, erakunde eskatzaileen ahalmen nahikoa daukaten pertsonen sinatuta. Memoria hori izango da Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dagoen ereduaren arabera.

Memoriaren alde teknikoan, diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatuko da eta erakunde bakoitzaren erantzukizunak, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adieraziko dira.

Proiektuaren justifikazioa egitean desbideratzeak badaude erakunde bakoitzak aurkeztutako gastuetan, diru-laguntzaren desbideratzea birdoitu ahal izango da barneko eta kanpoko gastuen artean. Bete beharreko baldintza izango da erakunde bakoitzari hasieran emandako diru-laguntza ez gehitzea, eta desbideratzea ez izatea kategoriatan bakoitzean adjudikatutako zenbatekoaren %20tik gorakoa; gainera, erakundeko langileen gastuetarako gehieneko diru-laguntza ezin izango da gainditu.

Partzuergoko erakundeek justifikazioan onartutako gastuak murrizten badira, ondorioz, murriztu egingo da 4. artikuluan salbetsutako erakundearen diru-laguntzaren azken zenbatekoa, %20ko goiko mugari eutsi arte.

- b) Sinatutako kontratuak, 40. artikuluan ezarritako baldintzen arabera horrela egin behar denean; eta eskatutako eskaintzei buruzko informazioa eta ekonomia eta eraginkortasun irizpideen arabera aukeraturikoen justifikazioa, goiko artikuluko horren arabera kontratazioaren uneak hala egitea eskatzen badu.
- c) Azterlanen kasuan, haien kopia osoa, formatu digitalean.
- d) Legezko baldintzak betetzen dituzten egindako gastuen fakturak.
- e) Fakturen banku ordainketen frogagiriak. Ez da onartuko eskura ordaintzea.
- f) Langileen azken zerrenda nominala, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean dauden pertsonen ordu-kopuruak justifikatzeko aurkeztutakoa. Erakundeari lotutako langile autonomoen ordu-kopuruak justifikatu behar badira, azken banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) eta kotizazio-oinarrien txostena (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne).
- g) Diru-laguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.

Edonola ere, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak erakunde liderrari beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak edota informazio osagarria eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskaera behar bezala ulertu, ebaluatu eta aztertzeko. Eska daitezkeen agiri horiek eskatzen diren unean zehazten den epean aurkeztu behar dira.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, jarduerak zer eragin duen ebaluatzeko, ekonomia eta enplegu adierazleak eskatu ahal izango dizkio enpresari, proiektuak irauten duen bitartean eta proiektua amaitu ondoko urteetan, enpresak zer bilakae-
ra izan duen eta proiektuak enpresan nola eragin duen ikusteko. Adierazleak aurkezteko epea informazio hori eskatzen zaion unean zehaztuko da.

**20. artikulua.—Diru-laguntza ordaintzea**

Proiektuaren ebaluazioa multzoa hartuta egingo da. Gero, proiektua aukeratzen bada, laguntzaren esleipena eta proiektuari emandako diru-kopuruak proiektuaren garapenean parte hartzen duten erakundeetako bakoitzari egingo zaie eta ordainduko zaizkie, bakoitza banan-banan onuraduna bailitzan.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak ordainduko dizkio diru-laguntzak, zuzenean, onuraduna den entitate bakoitzari. Honela:

- a) Emango den aurrekontuko zuzkidura bakoitzeko kopuruaren %75arte, laguntzaren emakida onetsitakoan.
- b) Gainerako %a 2020an, 19. artikuluaen 2. zenbakian jasotako azken justifikazio-ko agiriak aurkeztu ostean.

Kasu guztietan 2019 urterokoari dagokion diru-laguntza aldeztu aurretik ordainduko da, erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe.

Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira. Kopuru hori eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den diru-laguntzaren azken doikuntza egin behar da.

II. TITULUA**DIRU-LAGUNTZA GUZTIETARAKO XEDAPENAK****21. artikulua.—Diru-laguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak**

Honako hauek dira diru-laguntza jaso dezaketen gastuak: proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzun dioten eta epearen barruan egindako beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkatuan duten balioa baino handiagoak badira.

Edonola ere, honako gastu hauek ez dute diru-laguntzarik jasoko:

1. Diru-laguntzaren xedearekin argi eta garbi identifikatu ezin diren gastuak edota deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.
2. Erakunde eskatzaileetako baten eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan.

22. artikulua.—Gastuen egokitzapena

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, diru-laguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

23. artikulua.—Diru-laguntzen metaketa

Hemen jasotako laguntzek edo diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. Zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikuluek Minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar diezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoa-aren arabera, edozein enpresari emandako Minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

24. artikulua.—Diru-laguntzen bateragarritasuna

1. Dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu beragatik ematen dituztenekin. Halere,



DLFAren 18.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa inola ere ezin da izan, bera bakarrik edo beste batzuei batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduera-arlo batek diruz lagundutako gastuek ezin izango dute diru-laguntza jaso.

3. Nolanahi ere, diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailari era frogagarrian jakinarazi beharko diote beste diru-laguntzarik jaso duten, egun batean edo bestean eman. Hala balego, horrekin batera egin den diru itzulketako gutunaren kopia bidaliko da. Horrek guztiak hala behar du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste diru-laguntzen edo laguntza ekonomikoen zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, diru-laguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da. Jakinarazpen hau jakin eta berehala egin beharko da eta, edozein kasutan, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

4. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila beste finantzaizaileekin harremanetan jarri ahalko da baterako finantzaketa adosteko.

25. artikulua.— Laguntzaren publizitatea

Dekretu honen itzalpean emandako laguntzen onura jasotzen duten eskabideek jasotako laguntzari publizitatea eman beharko diote, 5/2005 Foru Aginduen 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren finantzaketa publikoari buruzko publizitate egokia, euskarri informatikoetan zein beste edozeinetan, esaera honetara mugatuko da: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturiko proiektua, Elkarlanean, Lankidetzan berrikuntza bultzatzeko Programa 2019 barruan». Beren-beregi galarazita geratzen da beste edozein testu edo irudi erabilteza Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

26. artikulua.— Diru-laguntzen argitaratzea

Diru-laguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Feder Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren arautegiari jarraituz, dekretu honetako laguntzak onartzeak berekin dakar datuak zerrenda publiko batean sartuko direla onartzea: alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko Feder 2014-2020 programa eragilearen eragiketen zerrendan.

III. TITULUA

DIRU-LAGUNTZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

27. artikulua.— Emateko prozedura

Diru-laguntzak norgehiagokako araubidearen arabera esleitzeko dira, deialdi eta hautaketa prozedura bakarren bidez, urtean diru-laguntza egitarau honentzat deialdi bat baino gehiago onartzeko aukera kaltetu gabe.

Hauxe hartzen da norgehiagokatzat: diru-laguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, arlo eta atal bakoitzean ezarri diren balorazio-irizpideekin bat etorritik horien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitekeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute diru-laguntza.

28. artikulua.— Eskabideak nola aurkeztu

Hau izango erakunde liderrak eskabideak aurkezteko jarraitu behar duen prozedura:

Eskabidea eta erantsitako memoria, behar bezala eta oso-osorik beteta, Internet bidez aurkeztu behar da. Horretarako, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila-



ren web orrian (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala>), bere bulego birtualari dagokion atalean dagoen formularioa erabili behar da.

Horrela bada, eskabideak bide telematikoetatik aurkeztu behar direnez, enpresa interesdunek aldeztu aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Hauxe eskatu beharko dute Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean (Orueta Apezpikua kalea, 6., Bilbo). Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian.

Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan alta emanda egotea (61/2010 Foru Dekretua, apirilaren 27koa. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 80 zenbakia, 2010eko apirilaren 30ekoa). Egoera horretan ez badago, erakundeak bulego birtualan inskribatzeko eskaera bete beharko du, diru-laguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

Nolanahi ere, organo instrukzio-egileak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ahal ditu, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta diru-laguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

Erakunde eskatzaile guztiek, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen diote organo instrukzio-egileari, 4. artikulua eta 10. artikulua aipatzen dituzten inguruabarren egiaztapena zuzenean lor ditzan; hori, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Diru-laguntzen Erregelamenduaren 17.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ziurtagiri telematiko egokien bidez egin daiteke.

Eskabideekin batera I. titulua III. kapitulua 19. artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira, arestian aipatu bulego birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

29. artikulua. — *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebartziko duten organo eskudunak*

Diru-laguntzetarako eskaerak Berrikuntza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta, eskaerok ebazteko, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko arduradunak esanbidezko ebazpena emango du, Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak hala proposaturik.

Diru-laguntzak emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkartza orekatura egotea. Horrek esan nahi du bi sexuek izan beharko dutela ordezkartza bat gutxienez, hala ezartzen baitu EGBLk.

30. artikulua. — *Espedientearen instrukzioa*

Eskabideen espedienteen instrukzioa honela egingo da:

1. Organo instrukzio-egileak egiaztatu egingo du foru dekretu honetan onuradunaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla.
2. Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari agindeia egingo zaio instrukzioaz arduratzen den organoak jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den 10 asteguneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela uste izango dela berariaz emango den ebazpenaren bitartez, APAPELen 21. eta 68. artikuluetan.
3. Nolanahi ere, organo instrukzio-egileak eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

**31. artikulua. — Eskabideen ebaluazioa**

Organo instrukzio-egileak ebaluatuko ditu eskabideak, eta behin betiko ebazpenari buruzko proposamena prestatuko du; hala ere, horrek ez die proposamen horretan onuradun legez agertzen diren erakundeei inolako eskubiderik emango.

32. artikulua. — Ebazpen proposamena

Ebaluazioa egin ondoren, organo instrukzio-egileak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela. Horretarako, eskaria egingo dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari. Halaber, erakunde eskatzaileraren zerga-egoerari buruzko ziurtagiria eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Behin egiaztatuta, instrukzioaz arduratzen den organoak Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiari ebazpen proposamena igorriko dio.

33. artikulua. — Aurrekontuaren muga

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztzen diren eskaeretatik, laguntzetarako ezarri den partidan izendatutako aurrekontuak uzten dituen beste eskaera baino ez dira hautatuko.

34. artikulua. — Ebazpena emateko epea

Aurkeztzen diren eskabideak ebazteko gehieneko epealdia sei (6) hilabetekoa izango da deialdi bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik.

Organo eskudunak, nolanahi ere, aurkeztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, horrela xedatzen baita APAPELen 25. artikuluan.

35. artikulua. — Ebazpena

Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebatziko du dagokion Foru Aginduen bidez.

Lehia erregimenean emango diren laguntzei dagozkien ebazpenak onartutako eta ukatutako laguntzak ekarriko ditu. Horrez gain, pertsona edo erakunde onuradun izateko foru dekretu honetan ezarri diren baldintza administratiboak eta teknikoak betetzen dituzten, baina deialdiari dagokion kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu izanagatik onartu ezin izan diren eskabideak ere ekarriko ditu. Aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera, eskaera bakoitzari esleitutako puntu-kopurua adieraziko da.

Diru-laguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, foru dekretu honetan edo dagokion deialdian onetsitako araudian xedatutakoa proiektuen izatera bereziari edo bestelako inguruabarrei egokitze aldera beharrezkoa irizten bazaio.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, APAPELen 40. Artikuluetan eta hurrengoe-tan ezarritakoa betez.

Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) laneguneko epea du —jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita— baiezkota emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute berariaz ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

36. artikulua. — Errekurtsoak

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko titularrari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, APAPELen ezarritakoarekin bat etorritz.

Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da jurisdikzioan jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupetu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

**37. artikulua.—Diru-laguntzari uko egitea**

Onuradun gertatu diren erakundeetakoren batek diru-laguntzari uko egingo balio, diru-laguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, puntu ordenari jarraiki, hurrengo dauden erakunde eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die erakunde interesdunei, hamar (10) eguneko epean diru-laguntza proposamena onets dezaten. Behin proposamena onartu ondoren, administrazio-organismoak diru-laguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egunekoa izango da, erakunde interesdunari diru-laguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarotakoan, uko egite guztiak diru-laguntza emateko baldintzak ez betetzat joko dira.

38. artikulua.—Jakinarazpen elektronikoa

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoak erabili beharko ditu, APAPELen ezarritakoaren arabera

Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.ebizkaia.eus>) bertaratuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoa buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduen arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

IV. TITULUA**DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA****39. artikulua.—Azpikontrazioa**

Pertsona edo erakunde onuradun batek azpikontrazioa egin duela ulertuko da diru-laguntzaren xedea den jarduera zati batez edo osorik egitea beste norbaitekin kontratatzen duenean. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da pertsona edo erakunde onuradunak berak bakarrik diruz lagundutako jarduera egiteko dauzkan gastuak kontratatzea. Ondorioz, makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak erostea, diruz lagundutako jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, eta diruz laguntzen den jardueraren gastu osagarriak egitea ez da azpikontrazioa joko.

Diruz laguntzen diren zerbitzu edo proiektuetako jardueren %100eraino azpikontreatu ahalko da, baldin eta DLFAren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, diru-laguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duten erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, bere lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko dute erabazten diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Horrela, diru-laguntzaren erakunde onuradunak, diru-laguntzaren xedeko jardueraren zati baten burutzapena beste batekin hitzartzen duenean, eta jarduera horrek diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen duenean, eta, horiez gain, azpikontrazioa 60.000 eurotik gorakoa bada, erakunde onuradunak azpikontrazio hori egiteko baimena eskatu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Horretarako, azpikontrazioaren baldintza nagusiak jakinarazi beharko dizkio, bai eta jardueraren burutzapena zein erakunderekin hitzartuko duen ere.

Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko zuzendari nagusiak ebatziko du eska-bide hori, hamabost (15) egun balioduneko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean eskabideari ezetsi egin dela ulertuko da.

**40. artikulua.—Eskaintzak aukeratzea**

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118.1 artikuluan finkatutako zenbatekoen parrekoa edo handiagoa bada, kontratu txikian (40.000 euro obrak burutzeko kontratueta eta 15.000 euro hornitze edo zerbitzu kontratueta), pertsona onuradunak hiru erakunde hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan agertu beharko dira edo, hala badagokio, diru-laguntza eskaeran, eta horien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

41. artikulua.—Jarraipena

1. Laguntzen erakunde onuradunek agiri bidez justifikatu beharko dute gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak eta betetzen dituztela laguntzak lortzeko foru dekretu honetan, dagokion deialdian eta emakida-ebazpenean ezartzen diren baldintzak. Horrez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, eta, hala dagokionean, erakunde laguntzaileak eskatuta, edozein momentutan justifikatu beharko dituzte alderdi horiek.

Hala, EGBLn xedatutakoaren arabera, diru-laguntza jasoko duten erakundeek lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatu beharko dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta DLFAn ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak diru-laguntza emateari buruzko ebazpena alda dezake, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta pertsona edo erakunde onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

3. Organo instrukzio-egileak entzunaldien egutegia ezar dezake egitaraura aurkeztu diren proiektuen organo instrukzio-egilearen aurrean nahi izanez gero azalpenak aurkezteko.

Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak aurkeztutako eskabideak ondo ulertu eta ebaluatzeko eta proiektuen garapenari buruzko ondorengo justifikazioetarako beharrezkotzat jotzen dituen agiri edo/eta informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio erakunde eskatzaileari.

4. Onuradun gertatu diren erakundeek, halaber, laguntza ematen duen erakundeari diru-laguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaioke diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldaketaren bidez aldeztu aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere diru-laguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira. APAPELen 32.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, epeak luzatzei edo hori ukatzei buruzko erabakien kontra ezin daiteke errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe prozedura amaitzen duen ebazpenaren kontra dagokiona jartzeko aukera.

Kasu horietan, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak jaso duen eta frogatu ez duen diru-kopurua bueltatu beharko du, baita dagokion berandutze-interesa ere.



5. Halaber, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eskatu ahal izango dizkio Planaren emaitzak egoki ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak entitate onuradunari lagundutako proiektuaren amaieratik eta hurrengo hiru (3) urteetan..

42. artikulua. — Diru-laguntzaren xedea justifikatzeko era

Diru-laguntza edo laguntza bakoitza agiriaren bidez frogatzeko moduan 19. artikulua xedatzen da.

Justifikazioa Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta. Horretarako, galdetegi bat bate behar da, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dagoena, bulego birtualean (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala>).

Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu organo instrukzio-egilearen aurrean, organoak erakunde onuradunari eskatuko dio hamabost (15) egun balioduneko epean aurkez dezala, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatuta. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta DLFAren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

43. artikulua. — Baldintzak aldatzea

Erakunde onuradunak diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu direla adierazten badu justifikatzeko orduan eta aldaketa horien ondorioz, oinarri hauek 41. artikuluan 4 atalean araututakoarekin bat, ebazpena aldatzeko arrazoiaren bat balego eta aldaketa onartzeko aurretiazko baimen administratiboa lortzeko izapidea egin ez balitz, diru-laguntza eman duen organoak onuradunak aurkeztutako justifikazioa onartuko du. Kasu horretan, onuradun den pertsonak edo erakundeak DLFA ezarritakoaren arabera, dagokion zigorra jaso ahalko du.

V. TITULUA**DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK****I. KAPITULUA****DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA****44. artikulua. — Diru-laguntza erakunde onuradunak berak itzultzea**

Borondatezko itzulketa da onuradunak berak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu ditu, DLFAren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte.

Diru-laguntza onuradunak berak eskatuta itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberrako ordainketa-gutuna erabili behar da; gutun hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulegoetan (Orueta apezpikuaren kalea 6, Bilbo) egingo da.

45. artikulua. — Ez betetzeak

Foru dekretu honetan nahiz aplika daitezkeen bestelako arauetan ezarri diren baldintzak zein, hala denean, ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira; baita kopuru horien interesak ere, halakorik sortu bada. Halaxe adierazten baita Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen DLFAren II. eta IV. tituluetan, dagozkion legezko ekintzen eta zehapenen kalterik gabe. Aipatutako zenbatekoak, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

**46. artikulua. — Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak**

Soberako finantzazioa gertatzen denean beste laguntza batzuk ere emategatik (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan ezarrita), sobera jasotakoa itzuli egin beharko da, bai eta dagozkion berandutze-interesak ere.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziario publikoan sortutako soberakina.

Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

45. artikulua kasuetan, pertsona edo erakunde onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak itzuli beharko ditu, bai eta dagokion berandutze-interesa ere.

Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da diru-laguntzaren itzulketa.

II. KAPITULUA**DIRU-LAGUNTZEI DAGOZKIEN ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK****47. artikulua. — Zehapen-prozedura**

DLFAren IV. Tituluan ezarritakoa bete beharko da.

APAPELen ezarritakoari jarraituko zaio, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari ere, aurrekoari aurka egiten ez dionean.

48. artikulua. — Deslokalizazioa

Enpresa eta erakunde onuradunek enpresako deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute; Enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektore Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauan xedatutakoa joko da deslokalizaziotzat; foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzei bete-betean aplikatuko zaie foru arau hori.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki baten bidez adieraziko da konpromiso hori noiz ez den bete, eta, horren ondorioz, itzuli egin beharko da diru-laguntza, goraxeago aipatu den foru arauan ezarritako prozedura ezarriko baita.

VI. TITULUA**XEDAPEN IRAGANKORRAK****Lehen Xedapen Iragankorra. — Jakinarazpen elektronikoa**

38. artikuluan ezarritako jakinarazpen elektronikoari buruzko betebeharrari dagokionez, jakinarazpena egiten denean prozedura ez badago teknikoki amaituta, jakinarazpena paperean egingo da, posta ziurtatuaren bidez.

**VII. TITULUA**
AZKEN XEDAPENAK**Lehenengo Azken Xedapena. — Ezarri beharreko arautegi orokorra**

Dekretu honetan aipatutako diru-laguntzei dagokienez, honako hauek aginduko dute: foru dekretu honetan bertan xedaturikoak, laguntzak emateko foru aginduetan ezartzen diren gainerako baldintzak, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren xedapenak, Diru-laguntzen Erregelamendua (2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua), eta Estatuko edo Europako Erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea erabiliko da.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua-ren arabera, arau horren 8, 9 eta 10 artikuluetan jasotako gardentasun eta publizitatearen inguruko betebeharrak erakunde pribatu hauei aplikatuko zaizkie: aurrekontu-ekitaldi baten zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik jasotzen dutenei, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra).

Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, bera-gan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena. Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean».

Bigarren Azken Xedapena. — Arauen garapena

Ahalmena ematen zaio Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko diputatuari honako dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean, beste deialdi batzuk egiteko ere.

Hirugarren Azken Xedapena. — Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak —guztira 851.000 euro— jarraian zerrendatuko diren aurrekontu partidetan, aurrekontu proiektu eta urtekoetatik ordainduko dira; gutxi gorabeherako kopuruetan banakatuta agertuko dira, eta muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

I. Kapitulua. — Enpresen arteko lankidetzak

Proiektuaren zenbakia: 2013/0051	
08.02/45100/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	37.500,00
2020	12.500,00
GUZTIRA	50.000,00



Proiektuaren zenbakia: 2013/0051	
08.02/44300/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	381.000,00
2020	127.000,00
GUZTIRA	508.000,00

II. Kapitulua. —Bitarteko organismoen arteko lankidetza

Proiektuaren zenbakia: 2013/0051	
08.02/45100/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	193.500,00
2020	64.500,00
GUZTIRA	258.000,00

Proiektuaren zenbakia: 2013/0051	
08.02/44300/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	18.750,00
2020	6.250,00
GUZTIRA	25.000,00

Proiektuaren zenbakia: 2013/0051	
08.02/43299/426.107	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2019	7.500,00
2020	2.500,00
GUZTIRA	10.000,00

Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan ezarritakoaren babesean, dekretu hau aurretik izapidetzen da, eta, horrenbestez, deialdi honek ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da. Ondorioz, diru-laguntzak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea arlo bakoitzeko eskabideak ebazten direnean.

Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak aurrekontuko kapitulu bereko beste partiden artean egokitu ahal izango dira. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu.

Bi tituluetako baten ekintzak finantzatzeko esleitutako funtsak agortzen ez badira, funts horiek erabili ahal izango dira beste tituluaren proiektu gehiago onartzeko.



Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua babesean (5/2005 Foru Araua garatzeko diru-laguntzen erregelamendua onesten du dekretu horrek), aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa areagotu ahal izango da, gehienez ere 200.000,00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak areagotu badira kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo gehitu delako edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaeren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.

Laugarren Azken Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko abenduaren 18an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**I. ERANSKINA**

Dekretu honen 4. artikuluan adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN -2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. zenbakiko BOEn argitaratua) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomiko nagusia

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornidura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
 - 41.1. taldea. Higiezen sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
 - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
 - 56.3. taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):
 - 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
 - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
 - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
 - 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
 - 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
 - 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk.
 - 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak.
- S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):
 - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahaliko dira, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.